

opusdei.org

Auto elektrikoen lasterketa

Bilboko Gran Vian zehar

2018 Mar 12

Otsailaren 18an, igandez,
Greenpower Proiektuaren barruan
Lehen Hezkuntzako 5. urteko eta eta
DBHko 1. urteko ikasleek hilabete
hauetan eraikitako auto elektriko eta
ekologikoen lehen lasterketa burutu
zen.

Ekitaldia, Kid's Kitcar Elkarteak
antolatu zuen, Bilboko Gran Vian
(Moyua eta El Corte Inglés-en artean)

eta zenbait ikastetxe eta famili
elkartetako 400 ikaslek parte hartu
zuten. *Ikusi argazkiak.*

Greenpower-en metodologia egiazko
erronken proposamenean
oinarritzen da, hala nola beste
zenbait ekintzetan: hauek, eduki
zientifikoa eta teknologikoaren
ikasketa osatzen dute pentsaera
dibergentearen garapenaren bidez
eta ikasleen kreatibitatea gehituz.

Gainera, hezkuntza ingurugiroaren
eta enpresako munduaren arteko
harremanak sustatzen ditu.

Horretarako, ikasleek babesak eta
baliabideak bilatu behar dituzte
beren proiektua gauzatzeko, beraz
komunikazioan eta salmentan
gaitasuna ere landu behar dute.
Halaber, negozio plan bat prestatu
behar dute babesleei azaltzeko .

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/auto-elektrikoen-
lasterketa/](https://opusdei.org/eu-es/article/auto-elektrikoen-lasterketa/) (2026 Mar 10)